

URDANETA TAR ANDRES

Urdaneta ta Zerain´dar Andrés Ordizia´n jaio zan 1508n. urtean eta Elkano´gaz sartu zan Ameriketa´ko zeregiñetara. 17 urtekoa zala bere laguntzaille zan baiña batez be ospetsu biurtu zan espezien billa egin eben bigarren osteran, Magallanes´ en itxaso estuan.

Bide ori egiten ebiltzala, guztien buru zan itxas-ontzia galdu egin zan Loaisa´ gaz eta Elkano´k artu bear izan eban agintaritzaz. Onek bere nagusiaren billa Joan nai izan eban, baiña ez eutsoen itzi. Bost itxas-ontzi ziran eta 1526n. urtean eldu ziran Santa Krutz´era. Andik itxas-esturantzaz jo eben, baiña ekaitz aundi bat sortu zan eta Elkano´ren ontzia aretzean kateatu zan. Itxas-gizon batzuk an il ziran eta besteak Elkano ta Urdaneta´gaz batera lurreratu egin ziran eta Urdaneta bialdu eben beste itxas-gizonen billa.

Ortxe artu eban Urdanetak, 18 urtekoa zala lenengo ardura aundia. Urrengo egunean eldu ziran ondatuak egozan lekura eta asko poztu ziran. Gaiñera bertatik ikusi al izan ebezan Loaisa itxas-ontziaren oialak. Pozez Joan ziran Elkano´ren aldera Urdaneta aurrean ebela.

Guztiak egozan alkartuta, baiña ez luzarorako. Barriro ekaitza sortu zan eta ontziditik amarrena galdu eben.

Urrengo ekiñaldian lortu eben Itxaso barera eltzea, baiña asko gaisorik eta zorritz beterik egozala. Santiago itxas-ontzia Mexiko´rantza joan zan zer-janik ez eukelako.

Iru illebe beranduago Marianas ugarteetara eldu ziran eta gero, Pilipiñetara eldu ziranean, Urdaneta´k basoetan billaketa bat egin eban, bide batez janariak ekarteko.

Molukas´era eldu ziranean, Portugal´darrakaz guda egin bear izan eben eta guda galdu ebenean Urdaneta´k

ez eban ituna onartu eta ugarte guztiak ikertzen ekin eban eta toki guztietan egiten zan lagun bertako inditarrakaz eta euren izkuntza be ikasi eban. Polbora-tonel bat lertu-jakon eta aurpegia erre eutson. Burruka galduta, inditarrak bizia zaindu eutsoen.

Portugaldarren ontzi baten etorri zan Erdi-Ugarte onetara. Koruña´tik urten ebela amaika urte ziran eta eldu ziranak ogei gizon. Urdaneta´k beragaz ekarri eban Molukas´en sortutaklo alabatu bat. 44 urtekoa zalá Urdaneta´k kapitaitza itzi eban eta lekaidetza artu Mexiko´ko Agustindarren etxean. Orrean bere ospea aundia-gotu egin zan. Lekaidetzan sei urte egin ebazenean II Felipe erregeak eskatu eutson itxas-gizonen talde batera sartzeko baiña ez Itxaso Barera joateko, Pilipiñetara baiño.

Zalantzak izan ebazan, baiña egarri aundia eukan bidé ori argitzeko eta onartu egin eban. Pilipiñetara eldu zanean, Legazpi´k egiten eban lurra eskuratze-lana guda-kaz eta berak Jesuseen Barri Ona zabaltzen eban.

Barriro Erdi-Ugarte onetara etorri zanean asmauta eukan bide barri ori ziurtatu eben, II Felipe´k nai eban lez. Bide barri ori ondo be ondo etorri jaken salerosleai, orrean Itxaropen Onaren edo "Buena Esperanza" lur-musturrera Joan barik, asko bide laburragoaz, "Galeón de Manila" eritxon ontzia artuta Txina, Pilipiñak eta India´ko espeziak Mexiko´ra ekarten ebazan.

1566n. urtean Urdaneta Erdi-Ugarte onetan izan zan eta ainbat bider artu eban II Felipe´k eta laster Joan zan Mexiko´ra eta an il zan 1568n. urteko bagillaren 3n. egunean.

Olazar´tar Martin´ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera errotan lagundu eziguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!